

Galtzauna



ESKUALDEA: Denboraren bankua, Berdintasun Sailaren apustua » Kolektorearen lanak amaitzean

KULTURA: San Joanak 1837. urtean nola ospatzen ziren jakiteko liburuxka

KIROL SALTSA: Altxotarrak hantizulaztea eskualdean zabaltzen

ELKARRIZKETA: Txarri Gestaira alegiar hacktibista



*India
eta Zelanda Berria,
bizi eta ezagutu*



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Udarako zozketa

Edertasun zerbitzu sorta eder bat lortu nahi duzu?

Pasa zaitetz gure zentrutik eta zure zenbakia lortuko duzu.

Zorte on!

Tfnoa. 943 67 03 38 | Leiza kalea z/g TOLOSA

Maite
ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA

ondo doakizu.



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Eredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbeagozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Dihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Aitzo, Amezketza, Anoeta, Balianrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Otxa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana euskaraz



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kubxa Fundazioaren, Tolosaldeko Udaleren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Garbiñe Biurrun: Justizia unibertsalaren heriotza
- Jone Otxoa-Aizpurua: Bat gutxiago

4-5 orrialdeak

NORMALIZAZIO ATALA

- euskararen semaforoa. blogspot.com blogak harrera bikaina izan du

6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Denboraren Bankua, Berdintasun Sailaren hurrengo proiektua
- Kolektorearen lanak udazkenean amaituko dira

14-16 orrialdeak

Galtzaundi 305

2009ko uztailaren 3a

Garbiñe Biurrun eta Jone Otxoa-Aizpurua	4-5
Eskualdeko albistekak:	
Denboraren bankua sortuko du berdintasun sailak	14-15
Kolektorearen lanak udazkenean amaituko dira	16
Kultura:	
1837an Sanjoan jaiak nolakoak ziren jakiteko liburuxka	20-21
Kirol Saltsa: Altxotarrak harri-zulatzen	22-23

ERREPORTAIA

Galtzaundirekin munduan barrena



7-13 orrialdeak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

ELKARRIZKETA

“Azkenean ikusten duzu jendearen esku utzi dituzun tresna horiek erabiltzen direla. Orain hiru urte interneten Bedaio hitzarekin bilaketa egiten bazenuen informazioa aurki zenezakezen. Gaur egun herri askoren ingurukoa baino gehiago dago Bedaiokoa. Lan asko dago oraindik egiteko, baina asko aurreratu da.”

- Txarli Gesteira Bedaioko wikia, bloga, giza sarea eta auzolan digitalak Bedaio 2.0-ren sortzailea

17-19. orrialdea



JUSTIZIA UNIBERTSALAREN HERIOTZA

GARBIÑE BIURRUN

Epailera

Joan den ekainaren 25ean onartu zen Espainiako Diputatuen Kongresuan Justizia Unibertsalaren mugapena. Lege prozesalen erreforma zabal bat aprobetxatu dute Aginte Judizialeko Lege Organikoaren 23. artikulua aldatzeko eta "injustizia" hau burutzeko. PSOEk, PPK, EAJ - PNVk eta CIUk eman diote euren baiezta erreforma honi. Erreformaren arabera genozidio delituak bakarrik ikertu eta epaituko dira Espainian baldin eta biktimak espainiarrak badira edo delitugileak Espainian badaude.

Spainian onartuta zegoen Justizia Unibertsalaren printzipioa delitu batzuekiko, horien artean genozidioa. Auzitegi Nazionalak dauka genozidio delituak ikertzeko eta epaitzeko eskumena, delitu hauek Espainiatik kanpo gertatu badira, inolako mugarik gabe, hau da, nork burutu duen delitua edo nor den horren biktima kontuan hartu gabe. Horren arabera, une honetan atzerrian gertatutako hainbat genozidiori buruz hainbat auzi izapidetzen ari dira Auzitegi Nazionalan: 1989an El Salvadorren burututako sei jesuiten hilketari buruzko auzitik hasita eta

2008an eta 2009an Tibetean eta Gazan gertatutako genozidioei buruzko auziekin bukatuta.

Justizia Unibertsalaren printzipioa gizarte demokratiko baten uko egin ezinezko lorpena da: printzipio honen bitartez nazioarteko erkidego osoaren interesak eta baloreak defendatzen dira, eta ez bakarrik balore estatalak edo partikularrak. Gainera, aurrerapauso handi bat izan da giza eskubideen defentsan.

Indarrean dagoen Nazioarteko Zuzenbideak Estatu guztiei ezartzen die gizateriaren aurkako krimenak pertsegitzeko betebeharra, edozein herrialdetan gertatuz gero eta erasotzaileen eta biktimen nazionalitatea edozein direlarik. Garbi dago zein den printzipio honen oinarria: horrelako jarrerak biktima zehatzei izugarritzko kaltea egiteaz gain, zibilizazio osoaren oinarriak arriskuan jartzen dituzte eta onartuta dauden giza eskubideak babesteko arauak urratzen dira.

Eskubideak ez dira ezer bermerik gabe. Hauen artean, berme judiziala da nagusia eta eraginkorrena Zuzenbidezko Estatu batean. Giza eskubideek eraginkortasun eskasa dute: egunero

ikusten ditugu mundu osoan oinarritzko eskubide horien urratzeak, askotan estatueta-ko eragileek burututakoak eta, noski, boterearen baime-naz.

Delitu horien inpunitatea edo zigorgabetasuna izugarria da: gerrako krimenak, genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak gutxitan zigortzen dira. Inpunitatearen arrazoirik nagusia zera da: bermerik eza eta, batez ere, berme judizial nahikorik eza. Egia da aurrerapausoak eman direla – nazioarteko auzitegi bereziak eta baita estatueta-ko auzitegien esku-men unibertsala –, eta egia da, baita ere, bide honetatik jarraitu behar dela aurrerago iristeko giza eskubideen defentsan.

Justizia Unibertsala ez da, beraz, etikaren ondorio artifizial bat. Nazioarteko Zuzenbideak landutako mekanismo bat da, Zuzenbidezko Estatuaren eskemaren arabera, Estatu guztiei giza eskubideak babesteko eta horien urratzerik larrienak ikertzeko eta epaitzeko. Horrela, botere guztiak Zuzenbidearen eta giza eskubideen pean jartzen dira.

Egin den erreforma honen helburua da Espainiako au-

"Giza eskubideek eraginkortasun eskasa dute: egunero ikusten ditugu mundu osoan oinarritzko eskubide horien urratzeak, askotan estatueta-ko eragileek burututakoak eta, noski, boterearen baime-naz".

zitegien eskumena desaktibatzea. Espainiako auzitegien ikerketak eraginkorrak izan dira kasu batzuetan. Gogoan daukagu oraindik Adolfo Scilingo Argentinako militarren epaiketa eta zigorra, eta baita ere Pinochetek jasan behar izan zuen prozesua eta aske mugitzeko mugak. Horregatik Israelek eta Txinak presionatu dute Espainian ez ikertzeko berriak burututako delitu larri horiek.

Baina benetan larriena da Espainiako arduradun politikoek – Gobernuak – bultzatu dutela Justizia Unibertsala mugatzeko erreforma, eta beste alderdi batzuek ekimen hori babestu dutela.

Argi dago giza eskubideen babesari jarritako muga berri hau indartsuak eta ahaltsuak babesteko sortua dela. Injustizia Unibertsalaren beste adibide bat. ■

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359


**ARTE
TAILERRA**
HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa,
margoak, eskultura.

Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 685

**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916





BAT GUTXIAGO

JONE OTXOA-AIZPURUA

Abeslaria

Zer ordea? Hona hemen erantzuna; gure planetan euli bat gutxiago dago. Baina euli hau ez zen gainontzeko euliak bezalakoa. Etxe Zuriko segurtasun neurri guztiei barre egin ostean, luxuzko egongela erraldoi batean sartzea lortu zuen. Garesti atera zitzaion, ordea.

Barack Obama, Estatu Batuetako presidentea, CNBCko telebista kateari elkarrizketa bat ematen ari zen bere finantza erreforma planaren berri emateko. Garai honetan jasaten ari garen eta jatorria Estatu Batuetan duen krisi ekonomikoari aurre egiteko erreforma aurkeztu behar zion munduari. Alabaina, elkarrizketa horren titular nagusia hauxe da; “Obamak euli bat hil du”.

Bi abisu eman zizkion euliari. Hirugarrengoa ez

zen abisurik egon. Elkarrizketa eteten eta gogai-karria bihurtzen ari zen euliari zartateko bat eman eta akabatu egin zuen. Elkarrizketatzailea, barrez. Obama, bere balentriaz harro. Eulia alfonbra dotorearen gainean geratu zen ziplo eta Obamak, kameralariari berau grabatzeko eskatu zion. Hartara, bien bitartean, eskuak garbituko zituen. Iñoiz iñork ikusi izan ez balu bezela, han erakutsi zion Obamak munduari berak hildako eulia. Lehena izan zela uste ote zuen?

Minutu gutxitan hasi ziren gertakari horren guztiaren ondorioak azalartzeko. Hasteko eta behin, erreforma fintzantzieroa bigarren edo hirugarren planora pasa zen. Bost axola. Guztiok argi genuen Obamak euli bat ehizatu zuela. Ilun, ordea, errefomaren nondik nora-

koak. Egunkariaren Interne-teko orrialdeetan “Obama matamoscas”, “Obama irritado es terrible” edota “Obama no duda pasar a la acción” bezelako titular ugari irakur zitezkeen. Aste hartako Youtube-ko bideoirik ikusiena izan zen. Animalien defentsarako elkarte ezberdinak ere euren desadostasuna azaldu zuten. Herritar ugari, berriz, blog eta oharretan beren poza agertzen zuten Estatu Batuetako presidentean horren gertukoa eta naturala izateagatik. Pribatuan egin ohi diren gauzak publikoki agertzeko ez due-lako inolako eragozpenik. Bestalde, une honetan, “Obama mosca” hitz ga-koak Google-en jarriz gero, milioi erdi esteka inguru agertzen dira. Dirudienez, hitz bitan; “izugarria notizia”.

Ez dakit nora goazen,

eta ez dakit non amaituko dugun. Zurrumbilo hori guztia, euli bat akabatzeak sortu baitzuen. Han eta hemen, eguneko edota aste-ko albiste bilakatu zen. Benetako albiste ilun eta gordinak itzalera eramateko, hauetatik ihes egiteko oso baliagarri gertatu zen. Euli bat akabatzea nahikoa da guztiok desbideratzeko. Baina kontua da, ni neu ere erori naizela sarean. Eta agian Google-en beste esteka bat gehiago agertuko da gaurtik aurrera. Ahulak gara oso.

Orain ez dut aterabiderik. Beraz, laburbilduz, munduan euli bat gutxiago dago Obamak ehizatu zuelako bat. Antzinan gainera, herrialde bateko agintaria heizatzeko trebetasunen arabera izendatzen zuten. Horregatik aukeratuko ote zuten Obama Estatu Batuetako presidentea? Agian bai. ■

Irakurri Gozatu eta Oparituren opari txekeen zozketa!

Saridunak:

Jesus Mari Agirre Mauleon (Tolosa)
Juan Karlos Arregi (Tolosa)
Aimar Altuna Ijurko (Lizartza)
Iñaki Artola (Abaltzisketa)
Modesto Zabala (Aduna)

Opari txeke bakoitzarekin %25eko deskontua egingo zaizue Tolosako Elkarte megadendan liburu bat erostean.


galtzaundi
EUSKALTAZKO ELKARTEA

Blogak oso harrera ona izan du

EUSKARARENSEMAFOROA.BLOGSPOT.COM

Erredakzio Batzardea

Euskararensemaforoa.blogspot.com izeneko blog honen helburu nagusiak, eskualdeko euskalgintzan aritzen diren pertsonen inplikazioa bultzatzea eta harremanak sendotzea dira. Izan ere, Tolosaldea, eskualde euskalduna da, baina normalizazioan burutu beharreko lana, oraindik ere, handia da.

Kanpainari amaiera emate-

Tolosaldeko euskalgintzan gertatzen diren notiziak guztien berri emateko sortu berri den euskararensemaforoa.blogspot.com blogak harrera txalogarria izan du.

ko, gure herrietako semaforotan ikus daitezkeen karteletan blogaren helbidea itsatsi da. Horrenbestez herritar guztiei zuzendutako gonbidapena luzatu nahi da. Blogean sartu eta bertan adierazitako informazioa jasotzeaz gain, norba-

nakoen parte hartzea ere bultzatu nahi da. Euskalgintzan aritzen diren entitateak eta norbanakoak elkarren artean, modu egoki batean komunikatuta eta bakoitzaren asmo, iradokizun, egitasmo eta abarren nondik norakoak konpartituz.

Orokorrean kanpainak izan duen harrera aipagarria izan da. Norbanakoengan piztu diren susmoak asko izan dira eta egunotan horren adierazgarri jendearen erantzunak jaso ditugu.

Bukatzeke, komunikabideek eta norbanakoek kanpainaren inguruan informazioa eskaintzeagatik eta izan duten erantzunarengatik eskerrak eman nahi dituzte blogaren sustatzaileek.

Baztandarren Biltzarrerara joateko autobusa

Galtzaundi Euskara Taldeak, uztailaren 19an, Elizondon ospatuko den Baztandarren Biltzarrerara joateko autobusa antolatu du. Autobusa goizeko 9:00etan irtengo da Tolosako Tren geltokitik eta itzulera, arratsaldeko 19:00tan izango da.

Autobus txartelen balioa 12 eurotako da eta Galtzaundiko bazkideentzat 9 eurotako balioa izango du. Bertara joateko, Galtzaundik Tolosako Nafarroa etorbidean duen egoitzan izena eman behar da. Anima zaitzete!



CDI Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL
IASASTU XXI S.L.
INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

MERTZERIA
Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA

R A K U

Arostegieta kalea, 2 - Tolosa


Mahala

Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Zelanda Berriko argazkiak: Enara Agerri
 Indiako argazkiak: Zigor Agirrezabala

Galtzaundirekin munduan barrena

GALTAUNDIK BIDAIAZTEKO PROPOSAMENAK EGINGO DITU UZTAILEKO BI ALEETAN

Leire Zubeldia

Ale honetan, eta uztailaren 17an kaleratu den uztaileko bigarren aldizkarian, bidaiari proposamenak egingo dituzte Galtzaundik. Oporrak prestatzea denen gustuko lana den arren, Tolosaldeko aldizkariak zeregin horretan lagundu nahi dizue ideia ezberdinak emanaz. Ale baikoitzean bi proposamen egingo dituzte. Munduko he-

Abuztuan izaten dute askok bidaiatzeko abagunea. Horregatik, Galtzaundin ohitura zaharra da hilabete horri begira jarri, eta proposamen ezberdinak egitea; Duela bi urte, Euskal Herria barrena ibili ginen, gure kontinente txikiko toki ezberdinak ezagutzeko. Iaz, Tolosaldean geratzea erabaki genuen bertako ondare kulturala ezagutzeko ibilbide atseginak proposatu. Etxekoa ezagututa, aurten mundura ateratzea pentsatu du Galtzaundik. Eskualdeko bidaiarien eskutik ezagutuko ditugu munduko leku liluragarriak.

rrialde ezberdinak, bertan izan diren Tolosaldeko bidaiarien eskutik ezagutuko ditugu. Oraingo honetan

Zelanda Berria eta India dira bisitatuko ditugun herrialdeak. Lehena, Enara Agerri hernaldearraren es-

kutik ezagutuko dugu. Aurtengo urtarrilean izan zen bertan hilabete batez. India zertxobait ezagutzeko berri, Zigor Agirrezabala tolosarrarekin bildu gara. Duela bi urte izan ziren bertan, bera eta Juanra Artola.

Bi proposamen ezberdin dira: Zelanda Berria, natura eta paisaia da. Indian, gizartea bera da paisaia. Irakurri eta zeuk aukeratu!

(hurrengo orrian jarraitzen du)



Zelanda Berria, abenturazaleen paradisia

ABENTURA KIROLA EGITEKO EHUNKA AUKERA DAUDE, ETA INOIZ AHAZTUKO EZ DITUZUN PAISAIK ERE BAI

Enara Agerri bi irla handiengan egon zen joan den urtarrean. “Biak ongi ikusteko hilabete bat behar da”. Denbora gutxiago izanez gero, hegoaldeko irla ezagutzeko gomendioa eman du bidaiariak. “Iparraldeko irlan leku zoragarriak daude, baina hegoaldeko irla bereziki da ederra”. Iparraldeko hiriburua Wellington da; azken hau baino handiagoa da ordea, Auckland hiria. Bertan bizi da irlako biztanleriaren zatirik handiena. Hegoaldeko uhartearen hiriburua berriz, Christchurch da. Hemen dago aireportua, eta bertan hartu zuen ostatu Enarak. “Base,

Zelanda Berria hiru uhartetan dago banatuta: Iparraldeko uhartea, hegoaldeko uhartea eta Stewart izeneko uharte txikia. Hondartza paradisiakoak, mendiak eta lakuak dira Zelanda Berriko paisaiaren ezaugarriak nagusienak. Zelanda Berria, natura da.

Australia eta Zelanda Berriko ostatu katea da. Leku ugaritan dituzte ostatuak. Zerbitzu ona ematen dute eta merkea da”. Bi irlatik mugitzeko berriz, autobus antolatu bat hartu zuen. “Aukera ona da hango ingururik ederrenak ezagutzeko. Gainera jende asko ezagutzen duzu. Baina ingeleraz ondo moldatzen ez denari ez diot autobusa hartzea gomendatzen, gidak azalpen guztiak ingeleraz ematen

baititu. Autoa alokatuta ere primeran moldatu zaitezke, eta askatasun gehiagorekin ibili”. Bigarren aukera hau hartzen dutenez, Wellington-en eta Picton-en dago Ferry-a.

IPARRALDEKO IRLA

Auckland da irlako hiririk handiena, nahiz eta hiriburu administratiboa Wellington izan. Irlako bizitoki nagusia da eta horregatik zerbitzu ugari daude bertan. “Baina

ez du aparteko ezer. Bertatik igaro behar baduzue geratu zaitezke, baina ez du merzei hau ezagutzeko espreski bertaraino joatea”. Auckland baino iparralderago dago Paihia-Bay of Islands herria. Hemendik Cape Reinga lurmuturrera joaten da. “Irlako ingururik ederrena da. Puntu honetan elkartzen dira Ozeano Pazifikoa eta Tasmaniako Itsasoa, Oso efektu kurioso sortzen da bi aldeetako urak elkartzean: Olatu lerro luze bat sortzen da”.

Paihia-Bay of Islands-etik gertu dago Mercury Bay. “Bertako ura beste ondartzetako baina beroagoa da. Lur azpian sumendi txikiak daude, eta bertatik merku-

rioa ateratzen da. Honek berotzen du ura”. Bitxikeria honetaz gain, inguru ederra da hau paisaiari dagokionean. Whitianga mendian ibilaldia egitea ere gomendatzen du Enarak, bertatik itsas-ertze guztia ikusten baita. Kiwi izeneko txoriak ikusteko aukera onena ere bada mendi hau.

Azkenik, Rotorua herria aipatu du Agerrik. Bertan bizi dira Maori-ak, Zelanda Berriko indigenak alegia. “Beraien kultura daukate, eta maoria hitz egiten dute. Ingelesarekin batera, Zelanda Berriko hizkuntza ofiziala da Maoria. Indigenak eta beraien hizkuntza errespetatuak eta baloratuak dira herrialdean. Nahiz eta gehienak Rotoruan biltzen diren, irla guztian hedatzen dira Maoriak”. Rotoruan Zorbing-a ere egin daiteke. Eta hemendik gertu, Taupo-n eskaintzen da Sky-Diving egiteko aukerarik onena. “Mendiz inguratutako laku baten gainean egiten da, eta paisaiak aberasgarriagoa egiten du saltoa. Gainera, beste lekutan baino merkeago irteten da”. Rafting-a egin nahi duenari aldiz, mendebalderago dagoen Waitomo herria aholkatzen dio Enarak. “Zailtasun batzuk baditu. 2 metroko ur jauzietatik jaitsi behar baita. Hiru orduko ibilbidea da, eta lehenengo ordu betea kobazulo baten barruan egiten da”.

HEGOALDEKO IRLA

Iparraldeko uhartean kirol abentura egiteko aukera zabala bada, oraindik eta aukera anitzagoa dago hegoaldeko irlan. Hala ere, irla honetan igaro beharreko denbora, toki ezberdinak ikusten baliatzea gomendatzen du Agerrik. “Irla menditsua da eta natur parkeek azale-



Zelanda Berrian oso ohikoak dira mota honetako paisaiak. Hemen basoz inguratutako hondartza bat, itsasoa eta mendiak ikus daitezke.



Cape Reinga. Hemen Ozeano Pazifikoak eta Tasmaniako itsasoak bat egiten dute, argazkian ikus daitekeen olatuen talka sortuz.

raren zati handia hartzen dute”. Horietako bat da Abel Tasman National Park. “Hemen, itsas-ertzetik mendi ibilbide bat egin daiteke, arroketa egoten diren milaka foka ikusiz”. Natur parke hau, irlaren iparraldeko puntan dago. Pixka bat beharago, Nelson Lakes Na-

tional Park aurkituko dugu. “Hemengo lakuak zoragarriak dira. Mendiz inguratuta daude. Azken hauen tonrorrak urte guztian egoten dira elurtuta, eta laku hauek islatzean oso irudi politak sortzen dituzte”.

Zelanda Berriak glaziarrak ere baditu: Franz Josef eta

Fox glaziarrak, irlaren mendebaldean daude, elkarrengandik oso gertu. Derrigor bisitatu beharreko lekua da hau hernaldearraren ustez. “Aukera ezberdinak eskaintzen dituzte: Kranpoiekin glaziarra oinez zeharkatu, eskalatu, edo elikoptero batetik ikusi. Material guztia,

(kranpoiak, eskaladako materiala, arropa bereziak...) eurek jartzen dute”.

Abentura kirola gogoko duenak, Queenstown herria ezagutu behar du. Ekintza posible guztiak daude bertan. “Egunez, kirol modalitate ezberdinak egin ditzakezu, eta gau igarotzeko festa giro aparta egoten da bertako taberna atseginetan. Herria ere oso polita da. Hara eta hona leku-aldatzen ibili eta gero, leku egokia da lau edo bost egun igarotzeko”.

Zelanda Berrira joaten denak abentura kitzikagarriak bizitzeko gogoia izan behar du. Mendizaleentzat bidaia paregabea da, eta ondartza nahiago duenak ere ez du aukera faltarik izango. Hiria gustuko duenak hobe du beste herrialde batzuk ezagutu. Zelanda Berria natura da.



Glaziarrak ere badaude Zelanda Berrian. Horietako bat da Fox glaziarra. Oinez edo eskalatu ibili daiteke bertatik. Elikopterotik ikusteko aukera ere amaten dute.



India iparraldea, sinesmen ezberdinen elkarbizitza

TENPLUAK, GANGES IBAIA, BEHIAK, TOKI SAKRATUAK, HIMALAYA... ERLIJOAREN ERAGINA EGUNERO IKUS DAITEKE ZAHARKITUTAKO HIRIETAKO KALEETAN


New Delhi hiriburuan lur hartu eta, berokak, usain ezezagunak eta aireportuan zegoen jendetzak harritu zituen Juanra Artola eta Zigor Agirrezabala tolosarrak. Berehala ulertu zuten hilabete terdiko bidaiari lagun izango zizutela. Oina lurrean jarri bezain pronto hasi zen abentura. “Bidaia prestatzen aritu ginenean zalanztan ibili ginen lehenengo gaua igarotzeko hotela aurretik hartu edo ez. Azkenean ezetz erabaki genuen, beraz, lur hartu eta lehenengo lana lo egiteko leku

Hinduak, Musulmanak, Sij-ak, Animistak, Budistak eta Kristauak. Sinesmen hauek mendeetan elkarrekin iraun dute lurralde berean. Bakoitzak bere tenpluak ditu, erromesaldiak egiten dituzte. Fededunak, beren erlijioari ertsiki lotuta bizi dira. Jainko eta jainkosen mosaiko handi baten modukoa da India. Paisaia gizartea bera da.

bat aurkitzea zen”, kontatu du Zigorrek. Gaueko 01:00ak jota ziren ordurako. Ez zeuden bakarrik; bertakoak hamarnaka inguratu zitzaizkien. “Hasieran esan ziguten, jai nazionala zela eta hotelak zeuden gunea itxita zegoela, gezurra zen noski. Gero bidai agentzia batetara eraman gintuzten... Azkenean lortu genuen ho-

tel baten atarian uztea”. Komeria hauek bizi eta gero, Zigorrek lehenengo gaua igarotzeko hotela aurrez erreserbatzea gomendatzen du.

Indiatik bidaiatzeko bi modu daude: Norberaren kabuz hegazkinak eta autobusak har-





Himalayaren bistak Ladak-eko hiriburu den Leh-tik.

tzea edo auto bat alokatzea. Tolosarrek bigarren aukera hartu zuten. “Indian leku arrikutsurik bada, horiek gelto-kiak eta aireportuak dira. Gainera, txartela hartzeko ilara luzeak egoten dira, eta denbo-

ra asko galtzen da. Egunero ilaratan denbora eta humorea galtzen ibili ordez, auto bat alokatu genuen bere gidari eta guzti”. Batetik bestera mugitzeko modu merkea eta eraginkorra dela diote bidaiariek.

Era honetan gainera, zirkuitu turistikoetatik urrun geratzen diren lekuak ere ezagutu daitezke, Kajurao, Baranasi eta Fatepur Sikri esaterako.


BARANASI, INDIAREN ESENTZIA

“Benetazko India Banarasi da”. Halaxe esan du Agirrezabalak. Ganges ibaiari jarraituz iritsi ziren hiri honetara. Berau ezagutzea merezi zuela eta bost egun igaro zituzten bertan. “Indiarrentzat Ganges ibaia sakratua bada, zer esanik ez ibai honen ur likitsak bustitzen duen Benares hiria. Induista guztien ametsa da Benaresen hiltzea, bertako uretan atsedean hartzeko”. Irudi gogorrek ikusi zituzten hiri honetako kaleetan. Pertsonak miseria gorrian zeuden, eta bien bitartean, kalean noraezean zebiltzan behiek gizakiek baino baliabide hobekak zituzten. “Harritu egin ginen behientzako hospitaleak zeudela jakin genuenean”.

Benares-era iritsi baino lehen Kajhurao herrian ere geratu ziren. “10.000 biztanleko hiria da. Txikia eta lasia 4.000.000 pertsona bizi diren Indiako beste hiriekin alderatuz. Agratik ere igaro ziren, Taj Mahal jauregi ospetsua ikusteko asmoz. “desilusia hartu genuen”, dio Zigorrek, “jendetza zegoen bertan jauregia atzean zutela argazki bat ateratzeko”.

IPARRALDERUNTZ, HIMALAYARUNTZ

Benares hiritik iparralderuntz joateko bidean, Hariward herrian egin zuten lehenengo geldialdia. Indian beste leku asko bezala toki sakratua da hau. “Kasualitatez, Xiba jainkoa gurtzeko erromesaldia egiten ari ziren. Milaka la-





gun zeuden, denak laranjaz jantzita. Gu ginen arraro bakarrak. Begi guztiak gainean eduki genituen. Indiarrak oso kuriosoak dira”.

Hemendik Srinagar-era joan ziren. Leku ezaguna da hau, Beatles musika taldeko kideak bertan izan baitziren. “Yoga eskolez josita dago hiria, eta bertakoak baino gehiago dira kasik mendebaldeko giriak”. Manalin berriz, Israeldar mordoarekin egin zuten topo. Israelen ohitura da soldaduska amaitu osteko urtea Indian pasatzea. “Hiri hau Nepaletik gertu dago. Himalayara gerturatzen zoenetz, paisaia aldatzen joaten da. Manalin nabarmena da aldaketa. Nepaldar ugari bizi dira bertan”.

Iparralderuntz hartutako bidearen helmuga Leh zen. Hau Indiak errefuxiatu tibetarreri utzitako herrialdea da. “Hemen ere zortea izan genuen, eta Dalai Lhamaren hitzaldi bat entzuteko aukera izan genuen”. Une ahaztezinak igaro zituzten arren, bertaraino iristea ez zen erraza izan. “Leh-ra iristeko, zazpi bat portu gainditu behar dira, eta txikiena 3.000 metrokoa da. Errepidea oso txarra da eta denbora mordo galetzen da bidean; hori land ro-



verrakmatxurarik izaten ez badu”. Joan eta etorriko bidaiak, errepidez egin zituzten tolosarrek. Igaro zutena igarota, bi bidaietako bat hegazkinaz egiteko aholkatzen dute. “Denbora aurreztu eta eroso bidaiatzeaz gain, ikuskizun zoragarri batez gozatuiko duzue: Himalaya mendi kateaz”.

Tibetar budistak, Hinduistak, musulmanak, animistak

eta Sij-ak ere ezagutu zituzten Zigor eta Juanrak. Gan-groti herrian ezagutu genituen. Sij-ekin batera, erromesaldian joan ziren 4.000 metrotara dagoen tenplu batera. Oso atsegina izan zen beraiekin egotea”.

Indiako bidaiak amaitzeko, azken hamabost egunak Rajasthan eskualdea ezagutzeko baliatu zituzten. Jodhpur, Bitaner, Jaisalmer eta beste hiri batzuetan egon ziren. “Hiri handiak dira (4.000.000 biztanle izaten dituzte), eta lur eremu zabalak dituzte nekazaritzan jarduteko. Bertako biztanleak oso serioak dira: turbante handiekin eta bitxiz josita ibiltzen dira, aristokratik balira bezala”. Jaisalmer hiria ikustea bereziki gomen-datzen dute. “Desertuaren ondoan dago. Oso hiri polita da: Adobezko eraikinak ditu eta Alde Zaharra oso ondo mantendu dute”. Hemendik ekialderuntz egin eta New Delhin amaitu zuten bidaiak.

Gomendatzen diren txerto guztiak hartzea; iturriko urik ez edatea; jaki gordinik ez jatea; elikagaiak ondo eginak egon daitezela; sueroa eta botikina aldean eramatea; eta higiena ondo zaintzea. Hauek dira Indiaran bidaiatzeko asmotan bazaudete, alde aurretik kontutan hartu beharreko oharrak. Hortik aurrera India eta indiarrak ezagutzuz gozatzea, besterik ez da egin behar. ■



TOLOSA >>> TOLOSAKO BERDINTASUN SAILAK DENBORAREN BANKUARI EMANGO DIO LEHENTASUNA %40 MURRITZAGOAK

Denboraren bankua, emakumeak la

Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak ekimen ugari ditu martxan. Garrantzitsuena, Tolosako Berdintasun Protokoloa da. Norma Vazquez psikologo eta adituak gauzatu du hau. Orain protokolo hori diseinatzeko diagnostikoa egiten ari dira. Horretaz gain, Berdintasun Plan estrategikoan ezarritako helburuak betetze aldera, hainbat ekimen jarriko dituzte martxan. Horien artean dago Denboraren Bankua



Leire Zubeldia

Denborak ez du preziorik; Horregatik ezin da diruz ordaindu. Denbora, soilik denborarekin ordaintzen da. Hori da Denboraren Bankua-ren funtsa: Lanetik etxerako bidean, Mila auto ilara batean harrapatuta geratu da. Dendak itxi egingo dituzte, eta otordurako jakiak erosi gabe geratuko da. Denboraren bankura deituko du, eta Anderrek egingo dizkie enkarguak. Anderrek erabilitako denbora, zerbitzu batekin “ordaindu”-ko dio Milak. Hori bai, interesik gabe.

Esperientzia hau, Euskal Herriko udalerrri ugaritan jarri dute martxan: Bilbo eta Ermua izan dira aitzindariak. Hain individualista bilakatu den jendarte honetan, sare sozialak sortu eta auzoko ezagutuz (gizonak, emakumeak, adinekoak, gazteak, etorkinak...) elkar

laguntzeko xedearekin sortu dira Denboraren Bankuak herriz-herriz. Tolosan helburu konkretuago batekin jarri nahi dute martxan esperientzia hau. Josebe Iturrioz, Tolosako Berdintasun Teknikariak azaldu du ekimenaren xedea: “Denboraldi baterako kontratuekin lan egiten dutenen artean, emakumeak dira gehienago Tolosan. Kontratu mota honetatik, kontratu mugagabera igarotzen direnen artean ordea, gizonetakoak dira nagusi. Ez da justua. Enpresek ateak ixten dizkie emakumeei eta krisi garai hauetan gehiago. Langabeziara bidaltzen gaituzte, gizonetakoekin baino gutxiago irabazten dugu, edo ez gaituzte lan postu baterako hartzen, nahiz eta ondo prestatuak egon. Gainera, emakumeok etxeko zama daramagu bizkarrean; gurasoak zahartuta daudela, seme-alabak, etxeko-lanak... Denbora ezak ere lan mundurako ateak ixten diz-

kigu, eta horregatik, emakume gehienak ezkutuko ekonomian aritzen dira. Denboraren bankuarekin, emakumeen denbora falta arindu nahi dugu, eta ideiak eman, lan posturik suertatzen ez bada, emakumeek handik edo hemendik eguneroko ogia irabazteko modua aurki dezaten”.

Emakumeen onurarako pentsatutako egitasmoa den arren, gizonetakoekin ere parte hartu dezakete Denboraren Bankuan. Bide batez, gizon eta emakumeen rola aldatu egingo dira: Gizonetako bati garbigailua jartzeko egokitu ahalko zaio, eta emakume bat iturgintza lanak egin beharrean gertatu daiteke. Elkartasun sarea sortzea izango da lehenengo pausoa. Behin hau josita dagoenean, formazioa sartuko du Berdintasun Sailak. “Era guztietako ikastaro eta tailerrak antolatuko ditugu, baina denak lan munduari begira trebatzeko izango dira”, azaldu du Josebek.

Denboraren bankua datoren ikasturteko apustu nagusia izango da. Krisiaren ondorioz, Berdintasun Sailak %40ra iritsi daitekeen murrizketak izango du urteko aurrekontuan. “Ondorioz hainbat ekimen bertan beherra utzi beharko ditugu, baina Denboraren Bankuak izango du lehentasun guztia”.

JABEKUNTZA ESKOLA

Lehentasanaren arabera zerrenda horretan, goiko postuetan dago baita ere Jabekuntza Eskola. Orain arte, “literatura eta emakumeak” bezalako hainbat ikastaro egin dituzte. Honek jarraipena izango du, baina aukerak aurreikusitakoak baino murriztuzkoak izango dira lehen aipatutako arrazoiarengatik.

Zer da jabekuntza? “Prozesu bat da, non emakumeek hausnarketa kolektibo bat egiten duten estrategia propio bat sortzen dutelarik. Honen bidez, formazioa lantzen dute. Guzti honekin biltzen dutena da, emakumeak jabekuntza lortzea; autoestima igotzea; boterea ematea; ikustea, gai direla eta ez dutela ezkutatu behar”. Nairobi sortu zen ideia hau 1995. urte inguruan. Geroztik, herrialde behartsuetako emakumeek egin dituzten mundu mailako biltzarretan landu da.

LARRIALDIETARAKO 943.57.22.22

Inauterien aurretik jarri zuten goian azaldutako telefono hau martxan. Emakume gazteei zuzendutako zerbitzua da. “Gauetan etxerako bidean bakarrik doaze-


AIZANGO DEN AURREKONTUAK BANATZEKO GARAIAN

n munduan sartzeko

“Berdintasun sailaren aurrekontuetan denboraren bankuak lehentasun osoa izango du”.

la eta norbait segika dutela somatzen badute, erasotuak izan daitezkeela sumatzen badute, susmo txikiena izan da ere, deitu dezatela telefono honetara eta udaltzain-

goen berehalako laguntza jasoko dute”. Lau hilabetetant 30 dei jaso dituzte. Berdintasun sailean uste dute, jendeak oraindik ez duela telefono zenbaki honen berri, eta hau zabaldu nahian dabilta. “Telefonoarekin jarraitu egingo dugu, dinamika bat sortu arte gauza hauek ez baitute funtzionatzen, eta horretarako denbora behar da”. Denek, telefono mugikorrean zenbaki hauxe izan behar dute gordeta. ■



Genero Berdintasunaren Alorreko Lan Eskubideen Gida

Ekainaren 16an aurkeztu zuten Tolosako Udal Pleno aretoan Genero Berdintasunaren Alorreko Lan Eskubideen gida. EAEko Berdintasunaren Defentsoriaren ekimena izan da hau. Berdintasun defendatzaileak, Maite Errok, Tolosan aurkeztu nahi izan zuen gida, udalerrri hau, Berdintasun ordenantza bat egiten aitzindaria izan delako.

Gida honek, lanaren alorrean emakumeek dituzten eskubideak biltzen ditu. Oro har, ez ditugu gure eskubideak ezagutzen, eta horrela zaila da hauek defendatzea. Modu simple eta ulerkorrean azalduta daude ondorengo alor hauekin lotutako eskubideak: Enplegua lortzea; lanbide sustapen eta prestakuntza; soldata eta ordainsariak; lan arloko, familia arloko eta norberaren bizitza uztartzea; sexu jazarpena eta sexu arrazoiengatik jazarpena; haurdunaldia uztartzeko eskubideak eta kontratuaren amaiera; eta genero indarkeriaren biktima diren emakume langileen eskubideak.

Beti Añai
jatekoa

Garaian garaiko janariak eta arraikiatan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA

Iñigo Ximénez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M^a de la Asunción klinika

Balorazio psikologikoa:
ebaluazioa eta orientazioa
Psicoterapia prozesua

ZABALA DESGUAZEAK

Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04

Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNTZA
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347



Txarli Gesteira alegiarrak Bedaiori mundu mailako ohiartzuna eman dio internet erabiliz.

Glokalaren sekretua: tresna globalak herrian erabili mundura zabaltzeko

ARTUBI TELEBISTA DIGITALA IZAN DA TXARLIREN AZKEN ASMAKIZUNA

Amaia Galkoetxea O.

Orain gutxi emititu du lehen aldiz zuzenean Artubi Telebistak. Zer moduzko estreinaldia izan du?

Orokorrean, ona izan zela esango nuke. Bedaion liburutegia inauguratzekoak ziren, eta internetez zabaldu nahi zuten mezua. Txolarre Irratikoekin hitz eginda zeuden, ekitaldia zuzenean emititzeko. Irratia.com-eko Patxi Gaztelumendirekin harremanetan jarri eta hark esan zidan beraiek telebistaz zuzenean emititzeko probak egiten ari zirela, eta inaugurazioa telebista bidez zuzenean emititzera zergatik ez ote nintzen animatzen galdetu zidan. Inaugurazio egunaren aurretik etxean proba batzuk egin nituen, bazirur-

Tolosaldeko herrien artean konparaketak egiten hasiz gero, seguru asko Bedaio izango da une honetan interneten azpiegitura eta tresna sare sendoena duen herria. Eta 'herria' diogu, ikusitakoak ikusita 'auzo' terminoa txiki geratzen baitzaio. Txarli Gesteira alegiarra (Bedaion ere bere parte baduena) da, afizioz eta musutruk, Bedaiori mundurako leiho hauek guztiak ireki dizkiona, hala nahi duten guztiei Bedaiora sartzeko aukera emanez.

dien ondo zihoala, eta aurrera egitea erabaki genuen. Abel Barriola, Haimar Irigoien, Iñake Irastortza eta 'Goiko' Bedaion izan ziren egun hartan, umeeekin solasaldi batean parte hartzen, eta horixe emititu zuen lehen aldiz zuzenean Artubi Telebistak. Audioarekin arazotxo batzuk izan genituen, baina bestela ondo atera

zen. Aldi berean grabatu ere egin genuen; orain grabazio haiek editatu ditut eta diferituan ikus daitezke Artubi telebistan.

Beraz, jarraipena izango du honak, ezta?

Badugu zuzeneko emanaldi gehiago egiteko asmoa. Horrelako emisioetarako kamera

bat edo webcam-a duen orde-nagailua, eta gutxienez mega bateko interneterako konexioa behar dira. Horrez gain, sarean aurki daitekeen livestream plataforma erabili nuen nik, baina plataforma horietako gehiago ere badaude; beraiek jartzen dizkizute behar dituzun euskarri guztiak. Edonork erabil dezakeen tresna da, irekia, partehartzailea... Azkenean hori da lortu nahi dena, jendearen partehartzea. Une batean sei ikusle batera izan genituen, behintzat baten bat ari zen begira!

Artubi Telebistaren zuzeneko emisioa izan da azken berrikuntza, baina aspaldi zabaldu zenion

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

munduari Bedaiorako leihoa...

Honaino iristeko bidea luzea da, bai. Abenduan hiru urte beteko dira Balerditik, Bedaio mundura! bloga sortu nuenetik. Sarean Bedaiori buruzko informazioa oso sakabanatua zegoela ikusten nuen, eta informazio hori guztia leku berean biltzeko sortu nuen bloga; informazioa bildu, ekitaldien berri eman... Bedaio-ko informazio orokorra, nolabait esateko. Bloga sortu eta handik urte erdira-edo hasi zi-

da 80 biztanle dituen herri batean oso zaila dela hori lorzea. Edozein modutan, bloga ez dago bedaiotarrei bakarrik zuzendua, mundu osoari baidizik, eta estatistikak gustura egoteko modukoak dira: 2007an 2000 bisita, iaz 3000...

Sarean hara eta hona zebilen Bedaiori buruzko informazioa nolabait 'zentralizatzeko' sortu zen beraz Balerditik, Bedaio mundura! bloga.

Bai, baina beste zerbaitek ere bultzatu ninduen horretara. Agustin Amianok idatziri-

guztia sakabanatuta zegoen, eta bestetik, askotan informazio hori herri kutsurik gabekoa zen.

Zer aurkituko du bisitariak Balerditik, Bedaio mundura! blogean?

Alde batetik, bertako historia. Bedaioko txistulariari egindako elkarrizketa bat irakur daiteke, 1967koa, eta audioa ere badago. Bedaiori buruz Argian argitaratutako bi artikulua ere irakur daitezke, 30eko hamarkada ingurukoak, zeinek dioten orduan ere abandonatua zegoela... Bestetik, ikusentzunezkoen atala legoke. Hasteko, argazki mordoa. Gero, bideoarekin lotuta Kontu-kontari proiektua jarri nuen martxan, herriko nagusiei elkarrizketak egitean zetzana. Proiektu honen helburuak bi dira: batetik, Bedaioko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea, eta bestetik, adinekoen euskara eta bizipenak jaso eta herritarren artean zabaltzea. Momentuz bi herritar elkarrizketatu ditut. Horrez gain, Artubi Telebista etengabe diferituan emititzen ari da: nagusiei egindako aipaturiko elkarrizketak, kultur asteko irudi batzuk, zaldi raid-ekoak... ikus daitezke emisio horretan. Bedaiorekin lotuta dauden irudiak azken batean. Fonoteka ere badago blog honetan; aipaturiko txistulariari elkarrizketa, aho-soinua jotzen zuen Dimas Jauregiren grabazio batzuk... Honekin lotuta, audioak eta bideoak zintzilikatzeke wiki bat sortu nuen. Blogean, agenda ere kontsultatu daiteke. Eta ahaztu gabe, Bedaioko baserriak Tagzarian geokokatuta ikus daitezke, baita Bedaioko bi bira 'ofizialak' ere: bat mendi martxan egiten dena, 25 km-koa, eta beste txikiago bat, Gurbil Haunditik Azkaratera eta handik Bedaiora datorrena. Teknologia, blogak, internet, soft-

ware librea eta antzeko gaiak buruz ere idazten dut noizean behin, nekazaritza biodinamikoak ere badu ere tartea, balkoi baratzeak... Bedaiori buruzko blog bat izan arren, Bedaio munduan dagoenez, tarteka, zuzenean Bedaiorekin lotuak ez dauden kontuei buruz ere idatzi izan dut. Esate baterako, The Kelly Family musika taldeak euskaraz Agur Jaunak abestu izanari buruzko post bat idatzi nuen; post honek Garako paperezko edizioan bere tartetxoa izan zuen gainera.

Audio eta bideoak zintzilikatzeke wiki bat aipatu duzu.

Wikiak taldean sortzen diren webguneak dira, edonork parte har dezake bertan. Esaterako, norbaitek audio artxi- boak baditu, wikian zintzilikatu ditzake, eta horrela parte-hartzaileen artean osatzen dira wikiko edukiak. Aipatu bezala, wikian Kontu kontari proiektua garatzen ari naiz. Horrez gain, Bedaioko musikari- en audio fitxategia osatzen ere ari naiz: Bedaioko txistularia, Dimas aho-soinujolea, Batisteren Gabonetako koplak... Bide batez, Bedaioko ibilbideak geolokalizatzeke tartea ere eskaintzen du; ibilbideak geolokalizatu eta GPS-ra jaitsi ditzakezu.

Giza-sarea da Bedaiok sarean duen beste leihotako bat.

Behin interneten saltsetzen nentzela, Suediako emakume bat bere arbasoen bila zebilela jakin nuen. Bazekien bere aitona Bedaiotik Argentinara emigratu zuela, eta handik ez dakit nora... Berarekin harremanetan jarri nintzen; azkenean bere aitona anai baten semearen arrastoa aurkitzea lortu nuen, Lizartzan jaioa. Emakume suediar haren kontuarekin hasi nintzen, Bedaiotik alde egindako ma-



"Bedaio abangoardia da alde horretatik. Batzuk 'los casero' esango lukete baina..."

ren Artubi elkartetik Bedaioko webgunea sortzen. Gune hau estatikoa da, horri finko batzuk ditu eta aldatzen den barkarra agenda da. Ni zerbait dinamikoagoa egitearen aldekoa naiz, eta partehartzailea bada, hobe. Gertatzen dena

ko artikulua bat irakurri nuen, auzo izendatuak diren tokien herri izaera errebindikatzen zuena, Bedaio kasu. Horrek zirikatzen ninduen, udalik gabeko herriak... Beraz, bi arrazoi nagusik bultzatuta sortu nuen bloga: alde batetik, informazio

kina bat jende egongo dela pentsatu nuen, eta giza-sare bat sortu nuen. Aurretik barenen beste giza-sare bat sortua, Alegiako Txintxarriemedia hain zuzen ere, 2008an euskal blogosferako 2. ekarpen onena aukeratua izan zena. Jendeari mota horretako bilaketak egiten laguntzea da helburua: “Ba al dakizue Zubillaga abizena duen bat Bedaiotik ez dakit nora joan zela eta...”, denen artean errazago izango delako horrelako galderei erantzunak aurkitzea. Zortzi lagun gaude giza-sare horretan, Bedaion jatorria dugunak. Bedaion bizi den bakarra dago; Floridan bizi da bat, Aldaban bestea, Zumarragan, Alegian...

Eta zer moduz fuzionatzen du giza-sare horrek?

Uste dut momentu honetan indarra har lezakeen gauza bat horixe dela, giza-sarea. Jendeak parte hartzen badu, argazkiak, bideoak, audioak... elkarbanatu eta komentatu ditzakezu... Floridako kideak argazkiak igo ditu, Zumarragakoak ere bai... Adibidez, Alegiako Txintxarriemedia oso ondo doa. Jendea mugitu da, argazki asko igo dira, foroak ere nahiko ondo doaz... Komunikatzeko tresna onak dira. Jende askok friki baten irudiarekin lotzen du jarduerara hau, ordenagailuaren aurrean bakarrik... Bakarrik zaude baina aldi berean sekulako komunikazioa mantendu dezakezu. Asinkronoa izan daiteke gainera, ez duzu pertsona batekin ordu batean eta toki batean geratu beharrik. Komunikaziorako tresnak dira, ematen zaie erabilpenean dago gakoa.

Hau dena martxan jarri ostean, zer darabilzu orain buruan?

Bloga, wikia, giza-sarea, Bedaioko orria eta Artubi Telebista. Horiek denak bilduko

dituen gune bat sortzeko asmoa dut, domeinu bat erosi, eta bedaio.info edo antzeko zerbait bat sortu. Atari moduko bat izango da, orain arte martxan jarritako tresna guztiak bilduko dituen. Ea urte amaierarako prest dagoen! Bestetik, Ahotsak.com proiektuarekin elkarlanean hastekoa naiz orain. Proiektu honen helburu nagusia Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea da; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarriketatu, eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herriartean artean zabaltzea. Kontu-kontari egitasmoan Bedaioko hainbat nagusiri egindako elkarrizketen harira jarri dira nirekin harremanetan, eta lankidetzan jarduteko asmoa dugu.

Nork esan Bedaiok sarean halako azpiegiturak eta halako zabalak izango zituenik...

Azkenean abangoardia da hau; Tolosan, esaterako, ez dago horrelakorik... “los caseros” esango lukete batzuk baina... Herri bezala beti baztertua egon da Bedaio, eta herrian zer dagoen erakutsarazi nahi nion jendeari. Sekulako mugimendua dauka, hain txikia izanik jende asko inplikatzeko da. Hilero antolatzen da ekitaldiren bat, hacktibistak gara!

Informatikaren mundu korapilatsu honetan autodidakta omen zaitugu.

Mundu honetan dabilen asko eta asko informatikariak dira; ni berriz, mekanikoa, autodidakta kar, kar... Hori bai, hasieran behintzat, beti laguntza eske, eta ahaztu gabe eskerrak eman nahi nizkieke behar izan dudanean esku bat bota didaten guztiei: Txintxarrisferako lagunei, Hamaika Web-eko Oskarri, Irratia.com-eko Patxi Gazte-

Bedaio sarean

<http://bedaio.wikispaces.com/WIKIA>

<http://balerditik.blogspot.com/BLOGA>

<http://bedaio.ning.com/GIZA-SAREA>

<http://bedaio.wikispaces.com/auzolana> - AUZOLAN DIGITALAK BEDAIO 2.0

lumendiri, Ordiziako IKTe-roei (Joulas, Magic...), Teke-teni... Bat edo beste ahaztuko zitzaidan, baina eskerrak eman nahi nizkieke guztiei musutruk eskainitako laguntzagatik. Azkenean ikusten duzu jendearen esku utzi dituzun tresna horiek erabiltzen direla. Orain hiru urte interneten Bedaio hitzarekin bilaketa egiten bazenuen informazioa aurki zenezakeen, baina oso eskasa zen. Gaur egun herri askoren ingurukoa baino gehiago dago Bedaio-ko. Lan asko dago oraindik egiteko, baina asko aurreratu da.

Orain arte egindakoak izan du bere oihartzuna Bedaiotik kanpo ere, eta ez nolana hiko gainera...

Orain urtebete post bat idatzi nuen Bedaioko Beko Iturriari buruz, erortzen ari baita, eta badirudi aurten Eusko Jaurlaritzak auzolandege bat antolatu duela Beko Iturrie eta inguruak txukuntzeko. Ez dakit nire postarengatik edo zergatik, baina konpontzera datoz. Hasi nintzenean, Bedaio, udalik gabeko herria zen eslogana, gero Bedaio, udalik eta espaloirik gabeko herria, aurrerago Bedaio, udalik, espaloirik eta

birziklatzeko ontzirik gabeko herria... Gaur egun inguruko herrietan baino ontzi gehiago dago, papera, plastikoa, beira eta olioak. Nik ez dakit hortik edo handik, baina norbaitek mezua jasotzen du. Hauteskundeetan ere alderdi guztiei bidali nien mezua baina Bedaiok euren programetan zein tarten zuen galdetuz... Alkateak bakarrik erantzun zidan, oso atsegin, dossier bat prestatzen ari zirela... Jendeari mezua helarazi behar zaio, behintzat, hor gaudela gogorarazteko. Beste behin beste post bat idatzi nuen Balerditik, Bedaio mundura! blogean, Baserri bat Txinan izenekoa, MCC-k Txinan lantegi bat ireki zuenean, hemen baserriak goitik behera erortzen ari direla eta nola han baserria eraiki zuten... Sustatun atera zen posta, eta horren bidez, Irlandan zegoen alegiar batek bloga ezagutu zuen. Prentsan ere izan ditu bere agerpenak... Mundutik urrun dago Bedaio baina... Azkenean, ‘glokala’ terminoak borobiltzen du hau dena, tresna globalak herrian erabili eta mundura zabaltzeko. Batzuetan iristen da; gero agian bertan dagoenak ez du harrapatu nahiko, baina iristen da. ■

HISTORIA >>> LAS FIESTAS DE TOLOSA EN 1837 LIBURUXKAN IKUSI AHAL DENEZ, EGUNGO JAIK ORDUKOEN OSO

Sanjoan jaiak, su bereko garra

Sanjoan jaien bezperan egin zen *Las fiestas de Tolosa en 1837* liburuxkaren berargitalpenaren aurkezpena Gipuzkoako Artxibo Orokorreko ekitaldi aretoan. Hain zuzen ere, bertako apalategietan aurkitu zuen Antxon Bandres ikerlariak Vicenta Maturanak idatzitako liburuxka. Emakume idazlearen kontakizunek liluratu egin zuten, eta ondorio interesgarri batera eramanez: Gaur egungo Sanjoanek, duela 172 urtekoen oso antzekoak dira.

Erredakzioa

Vicenta Maturanak Cadizekoa zen, familia militar bateko kidea.

Gazterik, Sevillara joan zen eta han hasi zen idazten. XIX. mendeko olerkari famatua izan zen. Militar batekin ezkondu zen. Gerra Karlistan, soldadu Karlista bezala etorri zen senarra hona. Vicenta Maturanak Berastegin jarri zen bizitzen. 1837. urtea zen; Berastegitik Tolosara jaitsi zen urte horretako ekainean. Horrela ezagutu zituen Sanjoan festak. Jaiegun horietan Tolosako kaleetan ikusitakoa idatzi zuen *Las Fiestas de Tolosa en 1837* liburuan.

27 orri besterik ez ditu liburuxkak. Tamaina txikikoa izan arren, altxor handi bat gordetzen du barruan. Hala iruditu zitzaion Antxon Bandres tolosar ikerlariari liburuxka bere eskuetara iritsi zenean. “Karlistadei buruzko ikerketa bat egiten ari nintzela, Gipuzkoako Artxibo Orokorrean topatu nuen libu-

ruxka hau. Irakurtzen hasi nintzenean, oso gauza polita iruditu zitzaidan”, azaldu zuen aurkezpenean. Berari bezala, tolosar guztiei ere, 1837. urtean herriko jaiak nolakoak ziren jakitea gustatuko litzaiekela otu zitzaion. Orduan, Ezpeleta tabernarien elkarteko lagunengana jo zuen liburuxka berargitaratzeko laguntza eske. “Alde batetik, oso ideia ona iruditu zitzaigun. Eta bestetik, Ezpeleta Elkarteak ostalaritzaz gain herriko gauzez ere arduratzen dela erakutsi nahi genuen”, jakinarazi zuen Mikel Zubiria Ezpeleta Elkarteko lehendakariak. 500 ale atera dituzte. Aurkezpen ekitaldian izan ez zirenek, Ezpeleta Elkarteko tabernetan eskuratu ahal izango dute liburuxka.

1837KOAK EGUNGOAK BEZALAKOAK

Vicenta Maturanak bere

lekukotza idatzi zuenetik 170 urte igaro badira ere, gaur egungo jaiak 1837. urtekoen oso antzekoak dira. Hain zuzen ere, ospakizunen antzekotasunak harritu zuen Bandres. “Liburuxka hau irakurrita konturatzen zara, gaurko Sanjoanetan 1837. urtean egiten ziren gauza berak egiten direla: Bordondantza; eskopetariaren alardea; Sanjoan suaren inguruko erritua; sokamuturra; atean lizarra jartzearena... Ohitura hauek, xehetasun txikiena barne, berdin-berdin mantentzen dira”. Horren frogagarri dira ondorengo pasarte hauek:

“El 24 apenas rayó el día, se vio la villa toda engalanada de frondosas ramas de arboles que colocados en todas las puertas de las casas...”.

“Los tanboriles y dulzainas con su alegre son, recorrieron la población entera y fueron la señal de un novillo de cuerda



Asier Eizagirre, Antxon Bandres eta Ezpeleta tabernarien elkarteko kideak liburuxkaren aurkezpenean.

que haciendo correr a las gentes deribando puestos a las vendedoras y ocasionando mil graciosos sustos...”

“...se dirigieron a la Iglesia Paroquial, en cuyas puertas fueron saludados por una descarga de arcabuces que hizo una tropa de Guipuzcoanos, cuyo aire marcial y guerrero contrastaba con el vestido de paisanos que los cubria, reduciendo a una chaqueta azul, un pantalón blanco y un sombrero redondo...”

“...también iban delante una tropa de mancebos en la primera flor de la juventud, vestidos de blanco y con fajas y adornos rojos, llevando en las manos unas largas varas pintadas de blanco y encarnando con las que hacían movimientos y bailes a compas, lo cual hace darles el nombre de Bordondanzaris”.

Liburuxkaren aurkikuntza egin duenari bereziki harri-garria iruditu zaio 1837an eskopetarien alardea egiten zela jakitea. “Guk jakin gabe,

alardetik zaharretakoa daukagu. Deskribapenen arabera orduan gizonezkoak ateratzen ziren soilik. Gaur egun emakumezkoek ere parte hartzen dute desfilean. Alde horretatik, gehien eboluzionatu duen alarde tradizionala daukagu”.

GERRA ETA FESTA

1837. urteko Sanjoanak hiru urteko etenaldiaren osteko lehenengo jaiak izan ziren. “Karlita eta Liberalen arteko gerra zibil batetik ater berriak zeuden. Gerra egon arren ordea, festak mantendu egiten ziren”, azpimarratu zuen Juantxo Agirre Mauleon, Aranzadi Zientzia Elkarteko lehendakariak. Gerra artean bezala, mende-etan zehar ere Sanjoan jaien ardatz nagusiak mantendu egin direla nabarmendu zuen gero.

Aranzadi Elkarteko kidearentzat ere, liburu hau aurkikuntza bat izan da. Bere garaian argitaratu zuten *Tolosa*



Bordondantzatik liburuaren jarraipen bezala ulertu du. “Liburu hura argitaratu genuenean ez genuen hau ezagutzen. Honen bidez, garai-ko tolosarrok Sanjoan jaiak nola ospatzen zituzten ezagutu ahal izan dugu”.

XIX. mendeko festak bai, ezagutzen ditugu jada; baina nolakoa zen orduko Tolosa?

“Oraindik harresia mantentzen zen orduan. San Frantzisko pasealekua dagoen lekuan soro handi bat zegoen. Harresitik kanpo, San Frantzisko eliza, Santa Klara eta Arrameleko eraikinak zeuden soilik”. Herriko festak ez ezik, denbora zaharren eta berrien arteko talka ere ikusten da liburuan, emakume baten begietatik. ■

antza

Altzotarrak, harri-zulatzea e

ALTZON HARRIZULATZAILEEN TALDEA OSATU DUTE. S

Leire Zubeldia

Iker Laso, Aitzol Irure, Ibai Irure eta Mikel Erauskin-ek osatutako taldeak zazpi zulo t' erdi egin zituen Sanjoan jaietan Tolosako zezen plazan ospatutako Harri Festan. "Bagenekien Jaizubiaren aurka zereginik ez genuela, hala ere lan txukuna egin genuen eta gustura aritu ginen", dio Iker Laso Altzoko harrizulatzailak. Tolosakoa ordea ez da altzotarren lehenengo jendaurrekoa izan. Iaz, herriko festetan eskaini zuten estreineko erakustaldia. "Festak antolatzen ari ginela, Bizkaiako harrizulatzailerei deitu genien ea Altzora etorriko ziren galdezka. Beraiek espero ez genuen erantzuna eman ziguten: *Eta zergatik ez duzue zuek egiten?*" Bizkaitarrak Altzora etorri, eta bertako harrobian azalpengutxi batzuk eman ostean hasi ziren euren kabuz ikasten. "Bi talde osatu genituen Altzoko jaietan erakustaldi bat egiteko. Jendea oso gustura egon zen begira. Hasiera batean ez genuen jarraitzeko asmorik. Soilik San Inazioetarako entrenatu ginen. Gero ordea, Amezketatik deitu ziguten ea hango festetan ere erakustaldi bat eskainiko genuen. Hau presatatzeko berriro hasi ginen entrenatzen. Azkenik, Harri Festaren

Altzoko mutil talde batek ekarri du harri-zulatzea eskualdera. Bizkaitarrendik azalpen gutxi batzuk jaso eta arituaren-arituaz ikasi dute. Orain gutxi federatu dira. Hondarribiako Jaizubiarekin batera, Gipuzkoako harrizulatzailak bakarrik dira. Eskualdeko beste herrietan harrizulatzailak taldeak sortzeko akuilu lana egiten ari dira orain.

proposamena egin ziguten, hortaz, entrenamenduekin jarraitu genuen". Altzoko harrizulatzailen taldea orain gutxi federatu da.

HARRIZULATZAILEAK PLAZARA

Hondarribiako Jaizubia eta Altzo; Gipuzkoan ez dago beste harrizulatzaila talderik. Tolosaldean ere aitzindariak dira. Eurei dagokie harrizulatzaila eskualdeko plazara ateratzea. Jabetzen dira horretaz, eta egin-kizun hori onartu egin dute. "Amezketako talde bati erakusten ari gara orain. Hauek animatuko balira, Gipuzkoan hiru talde egongo lirateke. Gainera pikea sortuko litzateke; nor-gehiagokak grazia gehiago du horrela". Amezketakoen erantzunaren zain daude, udaran harrizulatzailen Gipuzkoako txapelketa bat antolatu bai edo ez jakiteko. Aurten asmoa gauzatzeko modurik izaten ez bada, Iker Lasok begirada baikorrenekin begiratzen dio datorren urteari. "Amezketakoaz gain, Ibarra aldean beste talderen bat osatuko balitz, ba primeran! Nik uste dut, datorren urteko udarako, Tolosandean beste



Altzoko harrizulatzaila taldea eskualdeko beste herrietan talde gehiago sortzeko lanean dabil.

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16 943 425 886 943 420 187	Garibai, 8 943 420 259 943 430 947	Rondilla, 11 943 670 615 943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak
etab.

Arteka
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

eskualdeko plazan jarriz

SANJOANETAKO HARRI FESTAN HARTU ZUTEN PARTE

pare bat harrizulataile talde aterako direla”. Horretarako ezinbestekoa da harrizulataile herrietako plazara ateratzea. Horra hor altzotarren beste erronka.

MEATZEETAKO LANA HERRI KIROL

Harrizulataile, edo eurek deitzen dioten moduan, “barrenatzaile” herri kirola da. Gainontzeko jokoetan bezala, meatze-etako lana kirol bilakatu zen. Harrizulataileak Bizkaiko meatzeetan du jatorria. Barrenekin harriaren hamar zentimetroko zuloak egiten zituzten bertan dinamita sartu eta leherketak egiteko. Aurreko mende hasieran oso ohikoak ziren barrenatzaileen desafiokoak, baita Gipuzkoan ere. Tolosako Euskal Herria plazan esaterako, makina bat erakustaldi egin ziren. “Baina Gerra Zibilaren ostean, mailu elektrikoa agertu zen eta honek ekarri zuen harrizulatailearen galera. Gerora, bizkaitarrek berreskuratu egin zuten, baina ezin da garai batean zegoen zaletasunarekin alderatu”.

Gutxiago, baina hobeto barrenatzen da egun. Hori nabarmendu nahi izan du Lasok. “Bizkaitarren eskutik harrizulataile asko aldatu da. Lehen, eskuak odolduta amaitzen zuten; orain eskularruak erabiltzen dituzte, tako eta guz-



Altzotarrek Tolosako zezen plazan egin zen harri festan parte hartu zuten.

ti. Barrena ere hautsi egiten zen berotasunaren eraginez; oraingo barrenatzaileek badakite nola jo behar duten barrena ez hausteko”.

Jokoak hamar zentimetroko zuloak egitean datza. Normalean lau taldeak egiten dira: Hiru kidek barrenatu egiten dute elkarri txanda emanez. Laugarrenak botilero lanak egiten ditu. “Guk hamabi kolpeko txandak egiten ditugu, beste batzuk berriz, minuturo ematen dute erreleboa”. Jokoa era ezberdinetan planteatu daiteke: “Ordu erdian zenbat zulo egi-

ten diren neurtu daiteke, edo bestela, zulo kopuru jakin bat egiteko igarotzen den denbora”.

Harria, barrena eta gogoa; altzotarren hitzetan, besterik ez da behar harrizulataile izateko. “Indarra garrantzitsua da noski, barrenak 12 kilo pisatzen baititu eta hori gora eta behera mugitu beharra baitago”. Baina indarra ez da dena. “Zuloan asmatu egin behar da: zuloa zabaltzen ematen dituzun kolpe guztiak, sakoneran galtzen dituzu. Horretaz gain, barrena jiratzeko ere jakin behar da, bestela berotu eta indarra gal-

tzen du”. Oro har, harrizulataileak gizon edo emakume (Bizkaian emakume talde bat osatu dute orain gutxi) sendoak izaten dira. Badira batzuk orde, iharrak daudenak: “Indarra duenak kolpe handiak ematen dizkio harriari. Ahulago denak berriz, kolpe gogorak eman ordez, erritmo biziagoan jotzen du harria”. Oinarri bat jakinda, denek egin dezaketen kirola da harrizulataile. Horregatik, eskualdeko herri-tarrak probatzera animatu nahi dituzte. Altzotarrak erakusteko prest daude. ■

ZETA^S_L

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

TG

GORRI

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia

kafetegia

Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643

Uztailaren 3tik 17ra arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Ekainaren 18tik uztailaren 4ra: Kultur tailerretako ikasleen lanak: pintura, zermika, eskulanak, patchwork, ehoziriak, argazkigintza...

HERNIALDEKO OSTATUA

»» Uztailaren 13ra arte: Sahararrak, herri bat erbestean, Ander Gillenea argazkilaria argazki erakusketa zabalik.

AMARROZKO ANTZERKI ASTE A

»» Uztailak 3: Kontukantoi taldearen eskutik, Bazen norbait... izeneko antzez-lana gaueko 23.00etan. Ondoren, Comico de los caminos Pablo del Mundillok eskainita.

»» Uztailak 4: Pailaso Titiriteroak Sebastopol-eko titiriteroen eskutik arratsaldeko 17.30ean.

IRURAKO GARAGARDO AZOKA

»» Uztailak 3, 4 eta 5: Inaugurazioa ostiralean izango da, arratsaldeko 18:00etan. Aipatutako ordutik goizaldeko 01:00ak arte egongo da zabalik; igandean, 00:30ak arte. Mota ezberdinetako garagardo eta ohiko jakiez gain bestelako ekintzak ere egongo dira. Larunbata, uztailak 4; Mozorro jaia. Denek mozorroturik etorri behar dute. Gauean, playback-a egingo da

frontoian bertan. Arratsaldeko zazpietatik aurrera berriz, auto klasikoek erakustaldia izango da frontoi inguruan.

UDA GAZTE 2 0 0 9

TOLOSAKO TOPAGUNEA

»» Uztailak 3: Futbolin billar txapelketa Topagunean.

»» Uztailak 7 eta 8: Topagunea zabalik egongo da 16:30etatik 20:30etara.

»» Uztailak 9: Donostiako irlara irteera.

»» Uztailak 10: Fimo tailerra topagunean.

»» Uztailak 14: Henna Tailerra topagunean.

»» Uztailak 15: Filma Topagunean.

»» Uztailak 16: Olaberriako Karts-etara irteera.

»» Uztailak 17: Karaokea eta merendola Topagunean.

»» Uztailak 18: Egun pasa Mutrikun egingo den Spraykadan.

»» Uztailak 21: Topagunea zabalik egongo da 16:30etatik 20:30etara.

»» Uztailak 22: Kirol abentura egiteko Lekunberrira irteera.

»» Uztailak 23: Topagunea zabalik egongo da 16:30etatik 20:30etara.

»» Uztailak 24: Graffiti tailerra eta aldizkaritegia margotzea.

ALEGIAKO KARMEN JAI AK

»» - Uztailak 15: 18:30; Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien ERAKUSKETA udaletxeko arkupetan. 18:30;

Ordiziako erraldoi eta buruhaundiak eta Giroarte dultzaina taldearekin KALEJIRA Larraitz auzotik plazaraino. 19:00, Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean KONTZENTRAZIOA udaletxean eta ikurra jartzea. 19:00; TXUPINAZOA – kultura desberdinetik datozen herritarren eskutik eta Txintxarriaren igoera, jaien hasiera iragartzeko. Erreserkia Dantzari Txiki taldekoek dantzatuko dute. 20:00; TXINTXARRITXIKI eta TXINTXARRI abesbatzen kontzertua elizan. 21:00; Afaria, ZAHAGIARDOA, herriko plazan. 23:30; ELVISAVUELO taldearen kontzertua plazan.

- Uztailak 16: 9:00; Herriko txistularien eta trikitilarien DIANA. 9:30; GIROARTE dultzaina taldeak alaituriko diana. 11:00; "Iraunkorrak" txaranga kalez kale ibiliko da.

12:30; ALEGIAKO DANTZARIEN emanaldia herriko plazan. 17:30; Umeentzat meatzarien jokuak KULKI taldearen eskutik, eskolako patioan. 19:00; Patata tortilla TXAPELKETA. 19:00; ASIER UNSAIN eta IRMA KARRE-RArekin trikitixa plazan.

22:30; BERTSOLARIAK kultur etxean: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi eta Amaia Agirre. Gai-jartzaila: Felix Irazustabarrena. 00:00; OSTADAR taldearekin dantzaldia.

- Uztailak 17: 8:30; Jubilatuek antolatutako MENDI MARTXA. 9:00; Herriko txistularien eta trikitilarien DIANA. 10:00- 14:00; HAUR PARKEA eskolako patioan. 13:00; Apar Festa eskolako patioan. 11:00; Jubilatuentzat HAMAIKETA KOA. Ondoren BERTSOLARIAK plazan: Aitor Mendiluze eta Unai

TINDATEGIA



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



kutxa



ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Formakuntzan interesatua eta ez dakizu nora jo?

- Langileentzako formakuntza bila zabilta?
- Langabetuentzako formakuntza bila?
- Erdi nahiz goi mailako zikloen bila?
- Bestelako ikaskuntza motetan interesatua?

Tolosaldean Ikastn Bitartekotza Zerbitzuak lagundu zaitzake.

Zure intereseko formakuntza aurkitzeko dituzun aukerak hobetzen lagundu nahi dizugu; arreta pertsonalizatua, zuzena eta kalitatekoa eskainiz.

Norabide batean eskualdeko heziketa guztia: www.ikastn.com

Webgunean erregistratzearen abantailak: sms zerbitzua eta boletín elektronikoa.

Orain errazago da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu. Zatoz eta ezagutu gaitzazu!

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678

Posta-e: info@ikastn.com

Webgunea: www.ikastn.com

Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza

www.ikastn.com

Agirre. 14:00; Umeen bazkaria 16:00; Umeen "Santos Torneoko" FUTBITO-ko finala. 17:00; HAURJAIALDIA eskolako patioan. Merienda eta jokuak. 19:00; Sagardo kupela plazan.

21:00; Afaria, HERRI AFARIA plazan (Txekor jatea edo menu begetarianoa) 00:00; AMA SAY eta DELOREAN taldeen kontzertua.

-Uztailak 18: 9:00; ARRANTZALEHIKETA Oria ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat. 9:00; Herriko txistulari eta trikitilarien DIANA. 9:30; GIROARTE dultzaina taldeak alaitutako diana. 12:00; Sagardo DASTAKETA sardina eta txorizo erreekin. 12:00; ASIER UNSAIN eta IRMA KARRERAREkin trikitixa plazan. 18:00; HERRI KIROLAK Larritz auzoko plazan: Harrijasotzaileen IV. TXINTXARRI SARIA: Izeta II eta Izeta IV, Izeta III eta Ostolaza eta Aimar Irigoien, Bertiz Harriak: 125 kiloko kopa, 112,5 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindrozarra eta 100 kiloko bolarekin. Ondoren, Euskadiko Lasto-altxatze Txapelketa. 21:00; ZAHAGIARDO BATERATUA. Ardoa gaztetxeak, postrea udalak eta ogia norberak. 00:30-5:00; DJ MAKALA.

-Uztailak 19: 09:00; GIROARTE dultzaina taldeak alaitutako diana. 09:30; KALEJIRA BEREZIA, lehengo eta oraingo herriko txistulariekin. 12:00; 20 + HATZ PROJECT taldearen kontzertua plazan. 19:45; "MARIACHI VIVA MEXICO" taldearen emanaldia plazan. 23:00-03:00; Dantzaldia DRINDOTS taldearekin. 00:00; TXINTXARRIAREN ERREKETA

Guardiako farmaziak

UZTAILA

- Ostirala, 3**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Larunbata, 4**
Ugarte M^o Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Igandea, 5**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Astelehena, 6**
Ugarte M^o Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Asteartea, 7**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Asteazkena, 8**
Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
- Osteguna, 9**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Ostirala, 10**
Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa
- Larunbata, 11**
Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
- Igandea, 12**
Tolosa M^o Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Astelehena, 13**
Ugarte M^o Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Asteartea, 14**
Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
- Asteazkena, 15**
Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
- Osteguna, 16**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Ostirala, 17**
Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur
Osasun zentroa 943 653 212

Alto
Medikua 943 654 737

Anoeta-Alkiza-Hernalde
Medikua 943 652 339

Baliarrain
Medikua 943 889 003 (asteazk.)

Berastegi-Elduain
Medikua 943 683 361

Bidegoian
Medikua 943 681 134

Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu
Osasun etxea 943 672 411

Ikaztegieta
Medikua 943 653 329

Irura
Osasun zentroa 943 690 720

Tolosa
Anbulatorioa, larrialdiek 943 650 931
San Esteban, hitzordua 943 006 800
Gernikako Arbola, hitzor 943 006 900
Amarozko dispensarioa 943 672 637
Asunzion klinika 943 675 799
(larrialdiek) 943 675 390
San Kosme San Damian
geniatrikoa 943 672 932
Udalteingoa 943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi) 943 650 016
Ur zerbitzuak (abertak) 639 352 156
Iurreamendi egoitza 943 670 325
Larrialdiek, Suhiltzaileak 112
DYA 943 672 536
Gurutze Gornia 943 674 888
 943 651 425
Ertzaintza 943 673 022
Tolosa Basa 943 675 320

Lizartza
Medikua 943 682 077

Orendain
Medikua 943 655 595

Orexa
Medikua 943 682 228



MENDIZABAL
abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena
686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com
Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)

Joseba
Iturgintza
600 561 782

Iturgintza • Gasa • Berokuntza



URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Muxu-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesioa eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzea. 671 44 66 15

ETXEBIZITZA

- Etxebizitza salgai izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukalde eta komunarekin. 645 718 536

SALGAI

- Kotxe bat salgai BMW 330 D full equipen 18.000 euro. 629 52 51 50.
- Kotxe bat salgai (urte 1) 14.500 km. Opel Meriva Cosmo 667 232 015
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakurkumea salgai 678923512
- Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai 617 863 669
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa salgai. 617 863 669
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pintxer arrazakoak). 645 703 634
- Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai (aulkiak, hama, seaska,...). 653 733 675

HOROSKOPOA

UZTAILAREN 3TIK 17RA ARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Udan lan egitea egokitu zaizu aurten eta oportetara joan gabe geratuko zarela jakiteak gogaitzen zaitu. Jaiegunetan egun-pasa ederrak egin ditzakezu ordea, eta udara polita pasako duzu.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Ez geratu iritzi bakar batekin. Kontsultatu zure arazoa beste profesional batzuekin. Iritzi gehiago entzutea lagun-garri izango zaizu azken erabakia hartzeko orduan.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Eguzkiarekin kontu handia izan behar zenuke, azalean benetazko arazoak izan nahi ez badituzu. Inoizko parrandarik onenak egingo dituzu hilabete honetan.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Txoria eskuetan eduki aurretik ez esan harrapatu duzunik. Martxa honetan ingurukoek ez dute zugar sinetsiko. Zure izarrek erakargarritasuna emango dizute.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Aurtengo uda egokia izan liteke bidaia hori egiteko. Egia da diruz larri zabiltzala, baina aurtengoa izan daiteke zure azkeneko aukera. Aspaldiko lagun baten bisita jasoko duzu.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Pertsona zentzuduna da eta ezezkoa ematen badizu ere zuen harremana ez da hoztuko. Eltzea sutan jarri behar da berotzen duen jakiteko. Beraz eman pausoa behingoz!



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Udara honetan jende berri asko ezagutuko duzu, eta lagun on bat irabazi. Honek asko lagunduko dizu, maiz bakarrik sentitu baitzara. Zuzendu itzazu paperak burokraziarekin arazorik izan nahi ez baduzu.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Etxean albiste on ba jasoko duzue. Honek giroa hobetzen lagunduko du. Bestalde, lasaitu iezaiozu katea. Arnasa behar du, bikotekiderik gabe bere lagunekin atera.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Kurtso amaiera egokia izaten da datoren ikasturteari begira jarri eta ekin-tzak aukeratzeko. Gauza berriak egiteak lagundu egingo dizu. Hori bai, ez hartu lan gehiegi.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Lagunei aholkuak emateko garaian zureko jokatzeko duzu. Eurentzat onena dena gomendatu behar zenuke eta ez zuretzat onena izango dena. Zure joera hau nabarmen egiten ari da.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Egiaztatu ondo erosketen ordainketa txartelak, fakturak eta kutxako errezi-boak. Dirua galtzeko joera izango duzu. Espero ez duzun bidaia bat egin beharrean aurkituko zara.




PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Bikotekidea baduzu udara ahaztezia igaroko duzue elkarrekin. Bikotekiderik ez baduzu, hilabete honetan aurkituko duzu. Baina ez duzu parrandan ezagutuko, ezta gauz ere.





uribe
Higiezin kudeaketa

Etxeak, etxebizitzak, lokalak, garajeak eta pabilioiak

ETXEAK:

TOLOSA

Ref 723 FORUEN ETORBIDEA NAFARROAKO ETORBIDEAREKIN IZKINA, ALTUA 133 m². parkera bistak.
Ref 642 FORUEN ETORBIDEA- zoragarria 200m²ko altua eta erabat kanpora begira 751.265 €
Ref 756 GERNIKAKO ARBOLA 180 m² + TERRAZA. 2 sarrera
Ref 492 GUDARI kalea, zoragarria 150m²ko altua eta kanpokaldera. Garaje itxiarekin 522.000 €
Ref 214 ZUMALAKARREGI etxebizitza 150m²ko altua bistak ibaira 462.800 €
Ref 554 GIPUZKOAKO ENPARANTZA, altua 90,79 m² 324.000 €
Ref 590 RONDILLAN, TRIANGULOAN ERAIKIN BERRIA 1,2,3 gela, 270.456 €tik, eguzkia bista politak
Ref 652 ALLIRI 128m² terrazarekin, garajea, trasteleku eta terraza. 459.775 €
Ref 28 LETXUGA kalea igogailua 2 gela. Estreinatze 228.386 €
Ref 419 SAN FRANTZISKO Eraikin-notaria, ESTREINATZEKO 90 m² eta trasteleku. 576.000 €
Ref 442 SAN FRANTZISKO 110 m² eta GARAJE itxia.
Ref 395 LOPEZ MENDIZABAL Altua 110 m²ko GARAJEA eta TRASTELEKUA.
Ref 616 ORIA, sukaldea, sala, 2 gela komun eta terraza. 232.000 €
Ref 460 NAFARROAKO ETORBIDEA 91m² garajearekin
Ref 607 NAFARROAKO ETORBIDEA 88m² terrazarekin 384.650 €
Ref 586 IURRE 86 m² GARAJEA ETA TRASTELEKUA 402.680 €
Ref 421 RONDILLA 65m², sukaldea egongela 2 gela komun balkoiak, 276.465 €

Ref 816 ALMIRANTE. REKALDE sukaldea egongela 2 gela trasteleku bistak. 270.455 €
Ref 624 LARRAMENDI 4 gela sukaldea egongela 2 komun trasteleku NEGOTZIATZEKO
Ref 790 LARRAMENDI 3gela sukaldea egongela 2 komun trasteleku 312.530 €
Ref 646 IURRAMENDI, 76m² eta terraza 30 m². 282.500 €
Ref 768 BATX ZALDIBIA, 96 m² eta trasteleku, berrituta eta bistak 339.600 €
Ref 752 BATX ZALDIBIA, 96 m² eta trasteleku, altua bistak 330.556 €
Ref 412 BIZKAI KALEA (sputus), duplexa 82m² y trastelekuak. 276.465 €
Ref 585 BIDEBIETA 70m², altzariekin sartzeko modun. 198.335 €
Ref 541 LEITZA kalea hormigoizkoa, 53,65 m² izkina 186.000 €
Ref 653 EMPERADOR Paregabea 2 gela erabat berritutako eraikina eta laister igogailua. 228.385 €
Ref 531 KALE NAGUSIA, 2 gela. Sartzeko, 162.275 €
Ref 687 SANTA MARIA, 4. pisua berritzeko 58 m². sukaldea sala 2 gela 93.500 €
Ref 757, HERREROS, 62 m² berrituta 2 kaleetara, 192.000 €
Ref 760, SAN JUAN 95 m² 2 fatxada balkoiak bistak 276.466 €
Ref 595 AMAROS 83 m², sukaldea sala 3 gela trasteleku balkoia eguzkitsua 238.950 €
Ref 719 kale NAGUSIA 82 m² altua igogailu gabe kanpokaldera 141.240€
Ref 789 ZUBEROA 72 m² igogailuarekin 240.500 €
Ref 779 OLARRAIN, etxebizitza zoragarria 80 m² sala eta 3 gela 162.300 €
Ref 820 ZUMALAKARREGI, altua bistak oso eguzkitsua, sala 2 gela 252500 €

IBARRA

Ref 593 MAESTRO GURIDI 90 m² kanpokaldera terraza. 228.500 €
Ref 637 SAN IGNACIO igogailua. 74,58m². 3 gela sartzeko modun 234.500 €
Ref 613 JULIAN GAYARRE altua eguzkitsua eta bistak. dotorea 216.365 €
Ref 549 JULIAN GAYARRE 70 m² eta 2 trasteleku dotorea 251000 €
Ref 818 ARGINDEGI, sartzeko, gela 1 99.200 €
Ref 818 EUSKALHERRIA eraikuntza noblea zoragarria 74,67 m² 240.000 €
Ref 662 EUSKALHERRIA etxebizitza handia 90 m² lokala-garajearekin 252.000 €
Ref 581 EUSKALHERRIA pisu altua 105 m² 4 dotorea. Bista politak 336.000 €
BERROBI
Ref 573 ELIZA ONDOAN, 87,6 m² sala eta 3 gela. ganbara. sartzeko 231.390 €
ANOETA
Ref 320 SOLKORRE 88 m² eta ganbara 3 gela eta sala. Kanpokalderar 258435 €
Ref 654 IDIAKAITZ pisua terrazarekin, 3 gela eta sala. Gas kalefazioa 219.700 €
Ref 841 ITURBURU igogailua, 86 m² sala eta 3 gela, eguzkia bistak 208.500 €
IRURA:
Ref 826 PLAZA erdigunean zoragarria etxebizitza 166 m² 276.470 €
Ref 825 PLAZA SAN MIGUEL 93 m² altzariekin, sartzeko 276.475 €
ALEGI - IKAZTEGIETA
Ref 620 y Ref 563 LARRAITZ AUZOEA eskaintza desberdinak.
Ref 701 BIDEBARRIETA, oso polita 2 gela GARAJEA eta trasteleku 228.385 €
Ref 846 IKAZTEGIETA erdigunean, 90 m² 2 balkoi

igogailua sala eta 3 gela 210.350€

LOCALES y GARAJES eskaintza handia EROSKE-TA ETA ALOKAIRUA.

PABILIOIAK- SALGAI ETA ALOKAIRUAN

Ref 743: IBARRA, lokala semi industrialia, 401,93 m² SALGAI 216.365 €
Ref 742 TOLOSA-USABAL, 488 m², SALGAI 336.000 €
Ref 737: IRURAKO ZUZENEAN 300 M² SALGAI €
Ref 724: ANOETA, 375 m² SALGAI 500.000 €
Ref 694: BELAUNZA, 257,24 M² SALGAI 252.425 €
Ref 690: TOLOSA USABAL 956 m² . SALGAI 872.000 €
Ref 686: ALEGI, 250 m² SALGAI 293.000 €
Ref 685 ALEGI, SALGAI
Ref 678: RECTA IRURA 616 + 70m² lursaila 629.000 €
Ref 636: TOLOSA S ESTEBAN 325 m² + tarteko solairua 100m² SALGAI 310.000 €
Ref 387: BELAUNTZA 361 m² SALGAI 332.000 €
Ref 63: IBARRA CRA LEABURU 560 m² SALGAI 280.000 €

Ref 773: BELAUNTZA, 257,25 m² TV zirkuitu itxia ALOKAIRUA 1.415 € / hil.
Ref 739: ANOETA, 160 m² ALOKAIRUA 700 €
Ref 738: RECTA IRURA 300 M² ALOKAIRUA 1.300 €
Ref 725: ANOETA, 375 m² ALOKAIRUA 1800 €
Ref 700: LIZARTZA, 250 m² ALOKAIRUA 500 € / hil.
Ref 679: TOLOSA USABAL, 330 m² ALOKAIRUA 1500 €
Ref 669: ASTEASU, 300 m² ALOKAIRUA 1000 €
Ref 629: BELAUNZA, 250 M² ALOKAIRUA 700 €

San Frantzisko Ibiltokia, 25 • TOLOSA GIPUZKOA • Teléfono 943 655 515 - 626 636 138 • www.inmouribe.com

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 587



AMAIA ETXETXIPTA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

ARIKETA FISIKOA

HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888



A P A I N D E G I A

Zure lehen zerbitzuarengatik
eskatu zure BEHERAPEN txartela!

Irudi
ILEAPAINDEGIA

20 urte zuen
zerbitzura!

orain...

Eskolapioetako
lorategiak 1ean
Telf. 943 674 526



Polígono Industrial s/n
20270 Anoeta
Telf. 943 652 843
943 652 845



RENAULT Espace
Motorea: 1.9 dci
Urtea: 2004
Kilometroak: 100.000

Prezioa: 17.000 euro



Megane Sedan Confort Expression
Motorea: 1,5 cc 105 cv
Urtea: 2007
Kilometroak: 6.000

Prezioa: 11.000 euro



Megane Confort Expression
Motorea: 1,5 cc 105 cv
Urtea: 2007
Kilometroak: 35.000

Prezioa: 12.000 euro



Grand Espace
Motorea: 2.0 150cv
Urtea: 2007
Kilometroak: 9.500

Prezioa: 26.900 euro

Modelo	Km	DATA	PREZIOA
CLIO III			
CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 CV 5P	21.100	2006	11.500,00 €
CLIO III EMOTION 1.5 85 CV 5P	15.000	2008	11.900,00 €
CLIO III EMOTION 1.5 85 CV 5P	6.572	2008	12.500,00 €
CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 CV 5P	9.800	2007	12.500,00 €
CLIOIII PAC DYN 1.5DCI 85 CV 3P	10.000	2007	13.000,00 €
CLIOIII CON DY 1.5DCI 105 CV 3P	100	2007	14.250,00 €
ESPACE IV			
ESPACE 1.9 DCI EXPRESSION 5P	110.000	2005	17.000,00 €
ESPACE N EXPRESSION 2.2 DCI 16 V	84.375	2006	18.500,00 €
ESPACE 1.9DCI EXPRESSION 120 CV	27.500	2006	19.500,00 €
GRAN ESPACE EMOTION	9.500	2007	26.900,00 €
KANGOO			
KANGOO COMBI 4X4 1.6 16 V 95 CV	18.000	2007	13.000,00 €
KANGOO Furgón Confort 1.5 DCI	122.000	2007	7.500,00 €
KOLEOS			
KOLEOS DY PK2 2.0 DCI 150 CV 4X2	19.850	2008	24.900,00 €
LAGUNA II			
LAG2 EX 1,9 DCI	150.000	2001	5.500,00 €
LAGUNA II PRI 1.9 DCI 130 CV	105.000	2004	10.300,00 €
LAGUNA G.T.1.9DCI Con.Dyn.120 5P	117.586	2005	11.500,00 €
LAGUNA II CON EXP 1.9 DCI 130 C	25.100	2006	12.800,00 €
LAGUNA FAM II EXP 1.9 DCI 120 CV	65.700	2006	14.500,00 €
LAGUNA III			
N. LAGUNA III DYN 2.0 DCI 150CV	10.500	2007	24.500,00 €

Modelo	Km	DATA	PREZIOA
MASTER			
MASTER FURGON 3500 LAR SOB 2.5DC	164.500	2006	12.000,00 €
MASTER FURGON 35 LS 2.5 D	174.218	2006	12.500,00 €
MEGANE II			
MEGANE II Dynamic 1.5 DCI 85 CV	22.699	2008	12.000,00 €
MEGANE II Privilege 1.9 DCI 130 CV	27.124	2007	13.500,00 €
MEGANE 1.5dCi C.Expres. eco2 5P	23.300	2007	11.500,00 €
MEGANE II 5P CONFORT DYNAMIQUE 1	22.500	2008	13.300,00 €
MEGANE II 5P DYNAMIQUE 15DCI 85C	19.200	2008	13.500,00 €
MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 3P	16.954	2006	13.500,00 €
MEGANE II CON EX 1.5DCI 105 3P	100	2008	14.000,00 €
MEGANEII 1.5 D DYNAMIQUE 5P	6.000	2008	14.300,00 €
MEGANE II CON DY 1.5DCI 105 5P	7.000	2007	15.200,00 €
MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 5P	100	2008	16.000,00 €
MEGANE III			
Nuevo Megane Berlina Expression	KM0	2008	15.900,00 €
Nuevo Megane Berlina Expression	KM0	2009	16.000,00 €
Nuevo Megane Berlina Dynamique d	KM0	2008	18.000,00 €
MEGANE SEDAN			
MEGANE II SEDAN	6.000	2007	11.000,00 €
MEGANE SEDAN II	10.500	2.007	11.000,00 €
SCENIC			
SCENIC II CON EXP 2.0DCI 150CV	150	2007	17.000,00 €
GRAN SCENIC II 7PL	12.547	2007	17.500,00 €
BESTE MARKAK			
PT Cruiser 2.0 16 V Touring 5P	40.500	2002	8.300,00 €
León 1.9 TDI Sport 5P	138.000	2004	9.900,00 €
Astra 1.9 CDTi Cosmo 5P	76.593	2005	11.500,00 €

bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran
Kontsultatu beste motore eta ekipamentu aukerak. Unitate mugatuak.
Finantziario aukera zahalak. Galdetu lasai.